

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2312

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 16koa, Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritik, eta Dekretuaren, hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, dagokion proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera.

2014ko maiatzaren 27a, asteartea

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 16a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2014ko maiatzaren 27a, asteartea

ERANSKINA

ONARTUTAKO ESKABIDEAK, GOI-MAILAKO KIROLARI ETA TEKNIKARI DEKLARATZEARI BURUZKOAK

Izen-abizenak	Esp. zk.	Modalitatea	Oharrak
Alberdi Sorobe, Markel	307/14/D	Igeriketa	Kirolaria
Etxeberria Ferrer, Mirene	305/14/D	Arku-tiroa	Kirolaria
Fernandez Anaya, Ivan	294/14/D	Atletismoa	Kirolaria
Fernandez Resines, Sergio	306/14/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Frades Larralde, Gurutze	317/14/D	Triatloia	Kirolaria
Garcia Pereiro, Asier	304/14/D	Saskibaloia	Kirolaria
Genua Sistiaga, Igor	308/14/D	Errugbia	Kirolaria
Goikoetxea Astaburuaga, Irati	316/14/D	Piraguismoa	Kirolaria
Ibarra Rabancho, Elisabeth	301/14/D	Futbola	Kirolaria
Landa Iroz, Leire	299/14/D	Futbola	Kirolaria
Lastra Martinez, Jonathan	324/14/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Lazaro Castellero, Yaiza	295/14/D	Saskibaloia	Kirolaria
Lopez de Aberasturi de Arredondo, Iñigo	292/13/D	Padela	Kirolaria
Malanda Ruiz, Rakel	303/14/D	Tiroa	Kirolaria
Paredes Hernandez, Irene	300/14/D	Futbola	Kirolaria
Rojo Garcia, Imanol	310/14/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Sastre Sanchez-Vallejo, Iker	293/13/D	Mahai-tenisa	Kirolaria
Tirapu de Goñi, Ainhoa	297/14//D	Futbola	Kirolaria
Torre Larrañaga, Maddi	312/14/D	Futbola	Kirolaria
Torrontegui Ronco, Elaia	318/14/D	Taekwondo	Kirolaria
Unda Gonzalez de Audicana, Maider	313/14/D	Borroka	Kirolaria
Vazquez Morales, Erika	298/14/D	Futbola	Kirolaria
Vidondo Fernández de Larrinoa, Iñigo	320/14/D	Patinaje	Kirolaria
Crespo Moya, Luis	49/14/T	Borroka	Teknikaria
Perez Sanchez, Santiago	45/14/T	Atletismoa	Teknikaria